

San Balendin zaharbarrituaren aurrean neurtuko dabe artea Eleizondon (Zeanuri), zezeilaren 12an

Aurten be San Balendin jaia ospatuko da Zeanuriko Eleizondo auzoan, Piedadea izenaz ezagutzen dan ermitearen inguruan. San Balendin egunaren aurreko domekan, zezeilaren 12an, ospatuko dabe jaia. Gainera, Eleizondora hurreratzen diranek San



Andra Mari parrokiatik ermitara eroaten da santua prozesinoan, eta hurrengo urtera artebertan egon da

Balendinen irudi zaharbarritua ikusteko aukera izango dabe. Udan eroan eben eleizondotarrek San Balendinen irudia Bilboko Eleiz Museora eta urtarrilaren 24an ekarri eben bere ermitara erabat barriztuta. Juan Manuel González Cembellín, Museoko zuzendariak eta Aitor Bilbao, zaharbarritze lanen arduradunaren arabera, “irudia egurrezkoa da, ziur asko XVIII. gizaldiaren amaierakoa, barroko berantiar estilokoa; horregaitik, zaharbarritze beharrak sasoi horretako irudien eredua jarraituz egin dira. Batez be lan sakona egin behar izan da eskulturaren aurpegian eta eskuetan. Irudi osoa polikromatu behar izan dogu.”

Ospakizun apala bana bitxia

Jaia ospatzeko egitarau apala, baina, aldi berean, bitxia antolatu dabe eleizondotarrek: 11:30ean mezea izango da Andra Mari parrokian; meza ostean, San Balendinen irudia parrokiatik 50 bat metrora dagoan ermitara eroango dabe prozesinoan, datorren urtera arte bertan ixteko, eta jarraian ermitearen aurreko artearen neurketeari ekingo deutesie. Neurketearen akta sinatu eta gero, aurtengo *maiordomoak*, datorren urtekoari agiri-liburua eta ermitearen giltzea pasatuko deutesoz. Ostean, *barauskarria* —urdaia, pamtixa eta ardaoa— banatuko da bertara hurreratzen diranen artean. Ekintza horreek herriko txistularien eta bertsolarien kantuen artean burutuko dira.

Egitarau honetan aitagarria da orain dala berrogeta hameretzi urte eleizondotarrek hasi eben eta orain dala hamaika urte —aldi batean bertan behera itxita egon ostean— berreskuratu eta ofizialtasuna emon gura izan eutsien ekintzea: Piedadeko artearen neurketea.

Artearen neurketea

Lourdes Intxaurreaga, aurtengo *maiordomaren* arabera, “Piedadearen aurrean dagoan artea, lehenago leku berean egoan beste baten ordezkoa da; 1958 urtean landatu eben gure aurrekoek. Hurrengo urteetan, San Balendin egunean edota San Balendin eguna ospatzen zan domekan —gonbit egunean— batzuetan bazkalostean, eta beste batzuetan afalostean, jai giroan, bolanderak botaz, bertsoak abestuz..., artea neurtu



Orain dala 59 urte hasi ziran Piedadeko artea neurtzen eta urtero errepikatzen dan tradizino bat da

egiten eben. Neurtzeaz Gorordo baserriko Zeferino Lejarreta(+) arduratzen zan. Eta neurtu ostean, jaia amaitutzat emoten zan. Zeferinoren koadernoetan lehen urteetako neurketen zehetasunak aurkitu doguz; lehenengo neurketea 1959koa da, eta zera irakurri daiteke bertan: *La medida de la encina de la Piedad, en los años medidos. Grueso a la altura de 1,50: 0,18.*

Tradizino hau apurka-apurka galdu egin zan eta azken neurketea, Kandido Intxaurreagak egin eban 1999an; papertxo batean zera idatzi eban: *Piedadeko artea. 99-2-14. a 1,50 circunf.: 1,50*".

Aurrekoek hasitako ohiturea ez dabe galtzen itxi gura eleizondotarrekin, eta Lourdes Intxaurreagak dinoanez, "2007an neurtzen hasi ginan barriro, eta 2008an neurtzeaz gainera, agiri-liburua zabaldu genduan, bertan neurtzaileak, maiordomoak eta idazkariak sinatuz. 2008an, Piedadeko artearen neurketea hasi zanetik 50 urte betetzen ziranez, ofizialtasuna emon gura izan geuntsan ohitura bitxi honeri, aurrerantzean be jarraipena izan daian. Gainera, zuhaitzari neurri hartzeaz Zeferino Lejarretaren semea, Gregorio Lejarreta (+) aurduratu izan da igaz arte. Gregorio 2015ean hil egin zan eta igaz Gregorioren lekukoa Igor Intxaurreaga eleizondotarrak hartu eban. Aurrerantzean bera izango da neurtzailea."



Artea neurtu ondoren, agiri-liburuan sinatzen dabe maiordomoak, neurtzaileak eta idazkariak

Igaz hartutako neurria honako hau izan zan: 188 cm-ko perimetroa 150 cm-ko altueran, 2015ean baino 3 cm. gehiago. Zein izango ete da aurtengo neurria?

ZEZILAREN 12ko SAN BALENDIN JAIEN EGITARUA

- 11:30ean: * MEZEA, PARROKIAN.
 - * MEZA OSTEAN SAN BALENDIN-EN IRUDIA PARROKIATIK PIEDADEKO ERMITARA PROZESINOAN EROANGO DA.
 - * BARAUSKARRIAN JANGO DIRAN PAMITXEN BEDEINKAPENA
 - 12:30ean: * PIEDADEKO ARTEAREN NEURKETE (ohitura honen 59. urtea beteko da aurten)
 - * DATORREN URTEKO MAOIORDOMOARI AGIRI- LIBURUA ETA ERMITAKO GILTZAK PASATZEA.
 - 12:45ean: * BARAUSKARRIA: urdaia, ardaoa eta pamitxea.
- Herriko txistulariek eta bertsolariek alaituko dabe giroa.



Piedadeko ermitea eta bere aurrean artea

SAN BALENDINEN ZAHARBARRITZEA



San Balendinen irudia Eleiz Museotik ateratzen zaharbarritua izan ondoren

Eleiz Museoak egin dituen San Balendin irudiaren zaharberritze lanetan 3 atal ezberdin bereiz daitezke:

- 1- Kolorea finkatu, aurrerantzean arrakalatu edota hondatu ez daiten.
- 2- Estukatu (“bol” edo igeltsu finaren antzeko sustantzia aplikatu) eta estukoa berriro zizelkatu, horrela jatorrizko zizelkatzea errespetatzeko.
- 3- Berpolikromatu (estukoaren gainean margotu). Ia irudi osoa berpolikromatu da.

Lan sakonena aurpegian eta eskuetan egin da. Jatorrizko polikromia kontuan hartuz, irudia zaharbarritu egin da XVIII. gizaldiaren bigarren erdiko irudien eredua jarraituz, eskultura hau ziur aski sasoi horretan zizelkatutakoa da eta.

PIEADAEA ERMITEA ETA BERE EZAUGARRIAK

Eleizondoko Piedadea, errendegi ermita —*ermita humilladero* gazteleraz— izenez ezagutzen dan tipologiakoa da. Era honetako basilizak herrien sarreretatik hur, bide bazterretan, eregiten ziran edota, Piedadearen kasuan gertatzen dan lez, bere eleizpetik galtzadea igarotzen zan. Eleizondon oraindino ikusi daiteke Erdi Aroko galtzadearen tarte txiki bat.

Dirudienez, antxina, era honetako ermitetan Gurutzearen aurreko *errendia* (humillazinoa) egiten zan; zeremonia horren bidez ibiltariak bere *fidel* izaerea adierazten ei eban, hau da, ez zala moroa ezta judua be; horrez ganera, herrian sartu aurretik, gogo baketsuakaz etorrela adierazi gura eban.

Eleizondoko Piedadea basilizea XVIII. gizaldikoa da. Oin laukizuzena — 7,20 m X 5,30 m— dauka; hormak errekarritzkoak dira, harlandu txikiakaz ertzetan eta huts-guneen inguruetan. Lau urretako teilatua dauka, eta ez dauka kanpadorrerik.

Eleizpea zarratua da, eta puntu-erdiko ate bi eta leiho zabal bat daukaz, hau be puntu erdikoa. Sarrerek burdinaz sareztatutako ateak daroetz eta leihoak be burdindun hesia dauka.

Baselizarako sarrerea puntu erdiko arku bat da, egurrezko hesi bategaz itxia, arku horretan txertatzen da barrura sartzeko egur-atea.

Baselizan gordetzen diran irudiak: Piedadea, Jesusen Bihotza eta San Balendin.

Jaia: Lehenago San Balendin eguneko mezea parrokiaren emoten zan. Jai bezperan santuaren irudia parrokiara eroaten zan prozesinoan, eta San Balendin egunean, ermitearen inguruan buelta bat emon ondoren, bere jatorrizko lekuan ixten zan. Azken urteotan ohitura hau berreskuratu egin da.

SAN BALENDINEN BIOGRAFIA

Erromatar Martirologioak Balentin izenagaz bi santu aitutzen dauz: bata, abadea da eta bestea, gotzaina. Beharbada, nahasketa bat egon daiteke, eta pertsona berberari buruzko bi historia izan daitezke. Bata, **Terni-ko San Balendin** da; Interamnako (gaur egungo Terni) gotzaina izan zan. Ospetsua izan zan ebanjelizatze lanagatik, sendatzeengaitik eta mirariengaitik. Aureliano enperadorearen jazarpenetan gartzelaratu eta burua ebakita hil egin eben K. o. 273an. Bere gorpua Terniko katedralean dago.

Bestea, **Erromako San Balendin** da. Klaudio Godoa enperadorearen jazarpenak jasaten ebezanei laguntzen eutsen. Baina bera be gartzelaratu eta torturatua izan zan, eta burua ebakita hil egin eben, 268ko zezeilaren 14an. Bere erlikia gehienak Santa Praxades elizan dagoz.